



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko martxoaren 7a

34. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, 767.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Nafarroako Gobernuarentzat bigarren Informatika Zentroa (DPZ) sortu eta ezartzeko gastuak, 2014koak, finantzatzeko (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Trenasa enpresaren eta trenbide sarearen arteko lotuneak ukitutako familien etxebizitzak eros ditzan. José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa ixtea ekidin dezan eta txosten bat aurkez dezan, itxierari buruzko erabakia justifikatuko duena eta fundazioak egindako lanaren balorazio ekonomikoa eta soziala egingen duena. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tinko berma dezan Nafarroako Ospitaleguneko egungo garbiketa-zerbitzu publikoa mantenduko dela. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da CRANA Fundazioa manten dezan. Mozioa erretiratzea (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Kontzebituaren eta Emakume Haurdunaren Eskubideen Babeserako Legearen aurreproiektua ez izapidetzearen alde dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten baitu Nuclenor enpresak Garoñako zentral nuklearra berriro abian jartzeko aukera dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu emakumeen egiazko berdintasuna eta eskubide-osotasuna sustatuko duten lege-neurriak garatzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesaren adierazten baitie Nafarroako osasun-garraioko langileei, beren eskubideen eta lan-baldintzen defentsan. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere erabateko aurkakotasuna adierazten baitu Botere Judizialaren Lege Organikoaren erreforma dela-eta, justizia unibertsalaren printzipioaren eraginkortasuna eragozten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzeko konpromiso irmoa duela, eta herritarrei gonbit egiten baitie parte har dezaten Emakumearen Nazioarteko Egunaren kariatara antolatzen diren ekintza guztietan. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuari Arrosadian lagatako etxebizitza komunitarioei buruzkoa. Koldo Amezketa Díaz jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Legasako Arcelor-Mittal enpresaren lurretan jarduera ekonomikoen eremu bat eraikitzearen bidegarritasun ekonomikoari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Román Felones Morrás jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, 767.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena Nafarroako Gobernuarentzat bigarren Informatika Zentroa (DPZ) sortu eta ezartzeko gastuak, 2014koak, finantzatzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2013ko otsailaren 26an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parla-mentura foru lege proiektu bat igorri du, 767.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Nafarro-ako Gobernuarentzat bigarren Informatika Zentroa (DPZ) sortu eta ezartzeko gastuak, 2014koak, finantzatzeko.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako Gobernuarentzat bigarren Infor-matika Zentroa (DPZ) sortu eta ezartzeko gastu-ak, 2014koak, finantzatzeko 767.000 euroko kredi-tu-gehikuntza ematen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilku-raren esku jartzea.

2.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aur-keztu beharko zaizkio.

3.- Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamen-tuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, 767.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Nafarroako Gobernuarentzat bigarren Informatika Zentroa (DPZ) sortu eta ezartzeko gastuak, 2014koak, finantzatzeko

ZIOEN AZALPENA

Gaur egun Nafarroako Gobernuak informatika zentro (DPZ) bakarra du bere behar guztiak kude-atzeko. Segurtasuna eta efizientzia direla eta, beharrezkoa da bigarren zentro bat sortu eta ezar-tzea, Nafarroako Gobernuak sistema informatiko-en funtzionamendu egokia bermatuta egon dadin. Horretarako, eta, gastuen aurrekontuan ezarritako kreditua ez denez aski, beharrezkoa da 767.000 euroko kreditu-gehikuntza bat onestea, zentro hori sortu eta ezartzeko gastuak, 2014koak, finantza-tzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirila-ren 4ko 13/2007 Foru Legearen 4. artikulua ezar-tzen duenez, foru lege bidez arautuko dira Nafa-rroako aurrekontu orokorrak eta haien aldaketak, kreditu bereziak edo kreditu-gehikuntzak emateari dagokionez.

1. artikulua. Kreditu-gehikuntza ematea.

1. 767.000 euroko kreditu-gehikuntza onesten da, Nafarroako Gobernuarentzat bigarren Informatika Zentroa sortu eta ezartzeko gastuak finantzatzeko beharrei, 2014koei, erantzuteko.

2. Kreditu horren zenbatekoa honako kontu-sail hauei aplikatuko zaie:

- "Software lizentziak, erabilera orokorrekoak eta korporatibokoak" izeneko 070005-05500-2061-467900 kontu-sailari, 536.900 euro.

• “Ekipamendu informatikoa eta azpiegitura teknologikoak” izeneko 070005-05520-6060-467900 kontu-sailari, 230.100 euro.

3. Aipatutako kreditu berezia 2014rako luzatutako 2012ko aurrekontuko kontu-sail hauetan erabilgarri dagoen kredituarekin finantzatuko da:

Kontu-saila	070005 -05500 -2061 -467900	070005-05520-6060-467900
054002-02701-2220-131102	36.671,51 €	15.716,36 €
920000-91800-2220-231000	3.530,37 €	1.513,02 €
920002-91800-2220-231B00	1.460,01 €	625,72 €
920003-91800-2220-231B00	1.221,25 €	523,39 €
547004-52392-2220-312200	17.290,37 €	7.410,16 €
547001-52300-2220-312202	63.602,15 €	27.258,07 €
547003-52391-2220-312202	6.729,58 €	2.884,10 €
549000-52214-2220-312702	885,49 €	379,49 €
544000-52200-2220-312302	53.150,87 €	22.778,94 €
051000-02100-2224-132100	8.573,18 €	3.674,22 €
011001-01000-2220-112100	22.689,39 €	9.724,03 €
156000-17170-2220-932100	1.031,84 €	442,22 €
156000-17172-2220-932100	3.381,88 €	1.449,38 €
544002-52500-2220-312302	5.176,08 €	2.218,32 €
544001-52400-2220-312302	9.452,75 €	4.051,18 €
520001-51200-2220-313900	4.277,35 €	1.833,15 €
940000-95010-2220-336100	5.161,49 €	2.212,07 €
930004-94000-2220-231700	1.278,89 €	548,10 €
940003-95000-2212-232100	310,81 €	133,21 €
541004-52700-2220-312402	6.258,44 €	2.682,19 €
A21001-A2400-2224-332200	10.965,74 €	4.699,60 €
070005-05520-2220-467900	111.930,04 €	47.970,00 €
070005-05520-2224-467900	58.402,23 €	25.029,53 €
410009-41620-2224-322A00	79.433,97 €	34.043,13 €
170000-15300-2220-241300	8.152,28 €	3.493,83 €
540000-52000-2220-311102	15.882,04 €	6.806,59 €
GUZTIRA	536.900,00 €	230.100,00 €

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako Gobernuaren bigarren informatika zentrorako kredituen kudeaketa.

Funts mugimenduak egin ahalko dira bi kontu-sail hauen artean: “Software lizentziak, erabilera orokorrekoak eta korporatibokoak” izeneko 070005-05500-2061-467900 kontu-saila, eta “Ekipamendu informatikoa eta azpiegitura teknologikoak” izeneko 070005-05520-6060-467900 kontu-

saila, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eta 44. artikulutik 50. artikulura bitartean ezarritako mugak izan gabe.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Trenasa enpresaren eta trenbide sarearen arteko lotuneak ukitutako familien etxebizitzak eros ditzan.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Trenasa enpresaren eta trenbide sarearen arteko lotuneak ukitutako familien etxebizitzak eros ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2007an Trenes de Navarra, S.A. enpresak, Nafarroako Gobernuaren Nasuinsa enpresa publikoarekin akordioa egin ondoren, Castejonen ezarri zen eta bere jardueran hasi zen, alegia, bagoi eta lokomotorretarako egiturak fabrikatzen eta muntaketa lanak egiten, bai muntaketa mekanikoa eta ekipamenduarena, bai ekipo elektrikoaren konexioak eta probak. Jada zerbitzuan ari diren trenetarako probak ere egiten ditu.

Bere lana egiteko beharrezkoa zuen lantegia trenbidez lotzea Interes Orokorreko Trenbide Sarearekin.

Trenbide-lotura horrek etxebizitzan hiri-lurzorua zeharkatu behar zuen eta bitan zatitu Jerónimo Marco kalea (eta, kale horrek irteera bakarra duenez, bizilagunak inguraturik geldituko ziren enpresa pribatu baten, Renferen lurren eta trenbide berriaren artean). Horregatik, lur horiek Castejongo industrialdean sartzeari aurreikusita zegoenez, Nafarroako Gobernuak (Nasuinsa enpresa publikoaren bitartez), Castejongo Udalak eta Trenasa enpresak adostu zuten Nasuinsak etxebizitzak erosiko zizkiela ukitutako bizilagunei, Castejongo Udalak lur horiek eskuratuko zituela, hiriguneko beste toki batean balio bereko beste batzuk trukean emanda, eta gero Nafarroako Gobernuari lagako zizkiola etorkizuneko industrialdean sartzeko.

Horren frogara dira ukitutako bizilagunen etxebizitzari Nasuinsa enpresa publikoak egindako tasazioak eta 2006an bizilagunei bidalitako gutuna, bertan hau adierazi baitzitzaien: "Nafarroako Gobernuak Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuari atxikitako Navarra de Suelo Industrial, SA. enpresa Castejongo industrialdea berrantolatu eta handitzeko aukera aztertzen ari da. Zure jabetzako finka industrialdearen inguru hurbilean dago. Horregatik, egin nahi den berrantolaketak zure jabetzako lurretan eragina izan dezakeelakoan, jakinarazten dizugu laster zurekin harremanetan jarriko garela azterlan horren ondorioei buruzko informazioa zuzenean emateko".

Era horretara erraz konpon zitekeen arazoa duela jada urte batzuk: bizilagunek beren etxebizitzak kokaleku berriak izan behar zituzkete; trenbidearekiko lotura inolako arazorik gabe eginda legoke; eta enpresa aspalditik ariko litzateke trenbide-lotura erabiltzen, inolako ziurtasun gabezia juridikorik gabe.

2007ko uztailean, ordea, Nasuinsak bertan behera utzi zuen etxebizitzak erosteko bere eskaintza eta ordutik bizilagunek gorriak ikusi dituzte: hainbat urtetan egon dira obrak etxeko atean zituztela; andre batek ezin zuen ezta bere garajea erabili ere, obrek ibilgailuak sartu edo irteera eragozten zutelako; ikusi dute nola instalatzen zen plataforma tolesgarria (egun deuseztatuta dago), jasota dagoenean etxetik irteten uzten ez diena; eta oraindik amaierarik ikusten ez zaion auzi judizial batean alferrik xahutu dituzte diruak eta denbora.

2008ko abuztuan, Trenasak sustatu zuen “Castejongo arau subsidiarioen aldaketa, 1, sektoreko AHI eremu homogeneoari eta AHS eremu homogeneoari dagokionez, trenbide-erabilerara alda daitezen Castejongo baztergunearen trenbide-sarearekiko loturak ukitutako trazaduran?”

Aldaketa horri Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren urriaren 2ko 323/2008 Foru Aginduaren bitartez eman zitzaion behin betiko onespina.

Foru agindu horretan, espedientea onestean gainera, agintzen da sustatzaileak plan berezi bat egin dezala, aplikazio-esparruaren barruan gertzen diren etxebizitza-erabilerako lursailen egoera juridikoari konponbidea emateko, bermatze aldera egungo etxebizitza-erabilerako lurzorua eta kalifikazio berria batera gerta daitezela, ukitutako bide-etako eta oinezkoentzako sarbideei konponbidea emanda.

Arauen aldaketa horretan agintzen da 1. sektoretik interes orokorreko trenbide-sarera trenbide-lotura bat egin dadila, zeinak, besteak beste, eragina izanen bailuke egoitza-erabilerarakoak diren lurzoru batzuetan.

Plan bereziaren xedea da segurtatzea batera gertatu ahalko direla erabilera orokorraren aldaketatik heldu den trenbide-erabilera eta etxebizitzei dagokien etxebizitza-erabilera.

Plan berezi horri 2010eko martxoan eman zitzaion behin betiko onespina, eta bere baitan jasotzen zuen Jerónimo Marco kalean pasabide tolesgarri bat egitea, zeina trenbidea pasatzen den unean altxatuko baitzen eta ukitutako etxebizitzetarako sarbidea eragotziko bailuke, etxebizitza horietarako sarbide bakarra mozten duelako.

Halaber, plan bereziak jasotzen zuen pasabide alternatibo bat egiteko betebeharra; izan ere, pasabide hori erabiliko litzateke pasabide tolesgarria altxatuta egon eta larrialdiren bat gertatuz gero.

Nafarroako Auzitegi Nagusiak, 795/2013 zenbakiko epaian, plan berezi hori deuseztatu zuen, besteak beste honako arrazoi hauengatik:

- Trenbidea Jerónimo Marco kaletik (zeinetan baitaude ukitutako etxebizitzak) pasa dadin hautatu den aukera, nola baita pasabide tolesgarria, ez da aukerarik onena, eta ondorioztatzen da bizilagunentzat kaltegarria dela. Izan ere, aukerako beste konponbide batzuk badaude, berdin eraginkorrak eta interes partikularrei kalte txikiagoa egiten dietenak; are gehiago, kontuan beharra dago trenbidea egin ondoren etxebizitzetarako sarbidea okerragoa izanen dela.

- Plan berezia onetsi ondoren, etxebizitzak AHS eremu homogeneoak izatera pasa dira, eta lurzoru hori bateraezina da –horixe ezartzen baitute arau subsidiarioek– etxebizitza-erabilerarekin; horrenbestez, etxebizitza horiek halako “linbo” juridiko batean geratzen dira, lursailen egoera juridikoa definitu gabe utzita.

Plan berezia deuseztatu ondoren, bizilagunen egoera ez da inolaz ere hobetu, zeren eta pasabide tolesgarria jada jarrita baitago eta trenbide horretatik tren bat pasatzen den bakoitzean erabiltzen baita.

Peritu-txosten judizialak jasotakoaren arabera:

“Pasabidea eta trenbidearen itxitura etxebizitza baten lursailaren itxuratik metro batera dago, eta behin pasabidea altxatzen denean, pasabide horrek eragozten du ibilgailuak lursail horretara sartzea edo handik ateratzea...”

Horrenbestez, egiaztatzen da ezinezko gertatzen dela etxebizitzaren erabilera normala trenak pasatzeko maniobrek irauten duten bitartean.

Pasabide alternatiboari dagokionez, gaur egun ez du bermatzen sarbide- eta segurtasun-baldintzak betetzen direnik. Larrialdiko bide bat izanda, sinestezina dirudi 3 ate sarrailadun egotea (horrenbestez, larrialdi kasu batean, pasabidea altxatuta dagoela, larrialdiko zerbitzuak zailtasun handiak izanen lituzkete larrialdia gertatutako tokira iristeko)?

“Etxebizitzen jabeek beren etxebizitzetatik atera behar direnean trenak igarotzen ari diren bitartean, 800 metroko itzulinguru bat eman behar dute sarbide alternatibo batetik –existitzen ez den eta zehaztu gabe dagoen sarbidea, bestalde–, eta sarbide horrek industrialde batera eramaten ditu, alde batera utzita lursailen jabea den enpresa pribatuaren baimenik ba ote dagoen”

Enpresaren egoera ere ez da desio litekeena, zeren eta Nafarroako Auzitegi Nagusiak plan bere-

zia deuseztatu ondoren eta errekurtsioa aurkeztu ondoren, ikusten baitu obra “juridikoki zehaztu gabe dagoela,” horrek eragin ditzakeen zalantzeekin, eta egoera horrek eragina izan dezakeela bai enpresak etorkizunean egin litzakeen kontratuetan, bai enpresaren bideragarritasunean bertan ere, baldin eta errekurtsioak aurrera egiten badu.

Enpresak gaur egun 50 langile baino gehiago dauzka, eta lanpostu horiek gai honi ematen zaion behin betiko konponbidearen baitan egon daitezke.

Hori guztia dela eta, Izquierda-Ezkerrak uste du egokiena, zuzenena eta arrazoizkoena dela

Nafarroako Gobernua bere hasierako konpromisora itzul dadila eta etxebizitzak eros ditzala; izan ere, jada 2007an haien tasazioa egin zuen.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Trenasa enpresaren eta trenbide-sarearen arteko lotura-trenbideak ukitutako familien etxebizitzak eros ditzan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa ixtea ekidin dezan eta txosten bat aurkez dezan, itxierari buruzko erabakia justifikatuko duena eta fundazioak egindako lanaren balorazio ekonomikoa eta soziala eginen duena.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa ixtea ekidin dezan eta txosten bat aurkez dezan, itxierari buruzko erabakia justifikatuko duena eta fundazioak egindako lanaren balorazio ekonomikoa eta soziala eginen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeta eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroaren itxiera saihestu dezan, Gobernuak haren itxieraren erabakia justifikatzen duen txosten bat aurkez dezan eta zentroak jardun duen urteetan aurrera eraman duen jardunaren balorazio ekonomiko eta soziala egin dezan.

Zioen azalpena “Nafarroa ezin da lehiakorra izan iraunkorra ez bada”: horixe izan da Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroko langileen ordezkariak erabilitako argudio nagusietako bat Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egindako agerraldian, zeinetan helburu baitzuten Gobernuak berrazter dezala Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa ixteko erabakia. Zentro hori 1999an hasi eta 2002an amaitu zen parte-hartze publikoko prozesu batetik sortu zen, Nafarroako Hezkuntza Estrategiari buruzko eztabaidaren eta garapenaren barruan; prozesu horretan, foru erki-degoarekin etorkizun iraunkorarekin konpromisoa

hartutako 150 baino gehiago gizarte erakundek hartu zuten parte.

Ordutik gaur arte, Fundazioak zerbitzu oso garrantzitsuak eskaini izan dizkio Nafarroako gizarteari, dela zuzenean, dela enpresa eta hezkuntza zentroyen bitartez. Besteak beste, honako zerbitzuetan jardun du: ingurumenari buruzko txostenak eta dokumentazioa; ingurumenari buruzko komunikazioa; partaidetza publikoaren kudeaketa Nafarroako Foru Komunitatean aldi honetan sortutako proiektuetan; klima aldatetari, mugikortasunari, urari eta ibaiei, hondakinei, ingurumenkudeaketari eta enpresei buruzko azterlanak.

Behean sinatzen dugun taldeok uste dugu eza gutzen eta zerbitzuen metaketa hori guztia ezinbesteko gerta daitekeela, are gehiago herritarrek, gero eta intentsitate handiagoz, ingurumen iraunkorra sustatzen duten prozesuetan parte hartzeko bideak erreklamatzeko dituenen, zeren eta horixe baita, azken batez, gure belaunaldiak etorkizuneko belaunaldiei transmititu behar diena.

Parlamentu honetan ordezkariak dugun talde guztiok bat etorri gara Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa Fundazioak existitu den garaian egin duen lan on eta garrantzitsua aitortzerakoan; Nafarroako Gobernuak, ordea, itxiera saihesteko bere asmoa arintzera jo beharrean, hura kendu nahian jarraitzen du, nahiz eta erkidego gisa ingurumen-politiken kudeaketarako daukagun elementu nagusietako bat izan.

Hori guztia dela eta, funtsezkoa jotzen dugunez toki entitateek, enpresek, unibertsitateek, erakunde sozialek, erakunde ekologistek, sindikatuek, lanbide-elkargoek eta, azken batean, Nafarroako gizarte osoak jarrai dezatela edukitzen Ingurumen

arloko Baliabideen Zentroa bezalako tresna bat, zeinak sentiberatasun sozialean heziko baitu eta lagunduko baitu iraunkortasuneko ohiturak sustatzen, honen bidez, honako erabaki proposamena aurkeztu diogu Parlamentuko Osoko Bilkurari, eztabaida eta bozka dezan:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa itxtearekin eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du fundazio horri eutsi diezaion, foru erkidegoko ingurumen- eta iraunkortasun-politikak artikulatzeko eta orientatzeko funtsezko tresna bat delakoan.

2. Nolanahi ere, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Gobernuak fundazio hori itxteko ideiarekin aurrera egiten jarraitu baino lehen, txosten bat egin dezan hura itxteko arrazoiak justifikatzeko, langileekin ados jarrita hartarako aukerako konponbide bat bila dezan, eta bideragarritasun azterlan bat egin dezan, non irabazi asmorik gabeko erakunde horren alderdi ekonomikoak eta errentagarritasun sozialekoak balioetsiko batira.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du plantillari, ahal bezain azkar, exijitutako dokumentazioa eskura diezaion, zentro horretarako diseinatuta dagoen ekintza planari dagokionez, bai eta 2014rako aurrekontuaren onspenari dagokionez ere.

Iruñean, 2014ko otsailaren 26an

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba, Bakartxo Ruiz Jaso, Juan Carlos Longás García, Marisa de Simón Caballero eta Manu Ayerdi Olaiola

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tinko berma dezan Nafarroako Ospitaleguneko egungo garbiketa-zerbitzu publikoa mantenduko dela.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita tinko berma dezan Nafarroako Ospitaleguneko egungo garbiketa-zerbitzu publikoa mantenduko dela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Garbiketa Publikoen aldeko Batzordeko kideak harremanetan jarri ziren parlamentu-talde guztiekin, adierazte aldera nolako kezka zuten Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa-zerbitzua pixkanaka pribatizatzen joanen dela dioten informazio batzuen aurrean; izan ere, horrek berarekin ekarriko luke beste urrats bat ematea osasun publikoaren pribatizazioan, eta langile horien lanpostuak arriskuan jarriko lituzke.

Informazio horien aurrean, kontseilariak, Parlamentuko batzordean izandako agerraldian, goitik behera ukatu zuen garbiketa-zerbitzua aldatu behar zuela, eta adierazi zuen Departamentuak ez zuela hura pribatizatzen "inongo asmorik".

Horrenbestez, adierazi zuen "faltsuak" zirela Departamentuaren asmo hori baieztatzen zuten informazioak.

Geroztik, Garbiketa Publikoen aldeko Batzordeko kideak Parlamentuko lan bilera batera etorri ziren, eta erakutsi zuten pribatizatzen asmo hori

argi islatu zela Langileen Batzordeak joan den azaroaren 28an izandako bileraren aktaren zirriborroan. Zirriborro hori Langileen zuzendariak berak sinatu zuen.

Berriz ere erakutsi zuten kezkatuta daudela, zeren eta MAJU enpresarekin eginiko kontratua arabera –urtero luzatzekoa da kontratu hori– C pabilioiaren eta Larraldietako eraikinaren garbiketa enpresa horri esleituko baitzaizkio, inauguratzen direnean, eta, horrenbestez, langile publikoak alde batera utziko baitira, kontseilariak Legebiltzarrean igorritako erantzun batean aitortzen duen bezala. Gainera, etorkizunean egiten diren eraikinak eta jarduteko prestatzen diren espazioak enpresa pribatu horri esleituko zaizkie. Hori dela eta, beldur dira plantilla pixkanaka murrizten joanen den.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du tinko berma dezan egun dagoen Nafarroako Ospitaleguneko garbiketa zerbitzu publikoari eutsiko zaiola.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garbiketa zerbitzu publiko lanpostu guztiei euts diezaien.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan 2015erako luza MAJU enpresa pribatuarekin daukan kontratua, oraindik inauguratu ez diren C Pabilioiaren eta Larraldietako eraikinaren garbiketa pribatizatzen.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etorkizunean zabaltzen diren eraikinen eta zerbitzuen garbiketa-zerbitzuak ez pribatizatzen.

5. Nafarroako Parlamentuak onartezintzat jotzen du garbiketa zerbitzu publikoan behin-behineko lanpostuen tasa % 85ekoa izatea, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du enplegu eskaintza publiko bat egin dezan, lanpostuak eta langileen egoera egonkortze aldera.

Iruñean, 2014ko otsailaren 27an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da CRANA Fundazioa mantentzen dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen CRANA Fundazioa mantentzen zezan premiatzen

duen. Mozio hori 2014ko otsailaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Kontzebituaren eta Emakume Haurdunaren Eskubideen Babeserako Legearen aurreproiektua ez izapidetzearen alde dagoela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du Kontzebituaren eta Emakume Haurdunaren Eskubideen Babeserako Legearen aurreproiektua ez izapidetzearen alde dagoela, eta Espainiako Gobernuari eskatzen dio ez diezaien eraso egin emakumeen oinarrizko eskubideei.

Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Sexu-eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko gaur egungo 2/2010 Lege Organikoan jasotako eskubideak zabal daitezen, zertarako eta abortuak delitua izateari utz diezaion eta osasun-sistema publikoan libreki egin ahal izan dadin Espainiako lurralde osoan.

Nafarroako Parlamentuak haurdunaldiaren borondatezko etendura Nafarroako osasun sare

publikoan egin ahal izatea ziurtatze aldera jarduteko konpromisoa hartzen du.

Nafarroako Parlamentuak gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egiazko berdintasuna bultzatzeko konpromisoa hartzen du; hartara, bere esku dauden baliabide guztiak sustatu eta garatu dituzte, gizonezkoen eta emakumezkoen garapenera berberak izan ditzagun, eta, horretarako, hezkuntzaren, osasunaren, lanaren nahiz gizarte-babesaren arloetan jardunen du.

Nafarroako Parlamentuak adierazpen honen edukia aldarrikatze aldera mugimendu feministak nahiz gizarte-erakundeek deitzen dituzten manifestazio guztiak babesten ditu eta horiekin bat egiten du.”

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten baitu Nuclenor enpresak Garoñako zentral nuklearra berriro abian jartzeko aukera dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du Nuclenor enpresak Garoñako zentral nuklearra berriro abian jartzeko aukera dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuak berriro ere errefusatzen du Garoñako zentral nuklearra irekitzeko aukera, eta Alderdi Popularraren Gobernuia premitzen du ez dezan utz aipatu zentrala, zeinaren

balio-bizitza luzaz gainditu baita, berriro ere abian jartzen.

3. Erabaki hau Industria, Energia eta Turismo-ko ministro José Manuel Soria López jaunari eta Estatuko Gobernuako lehendakari Mariano Rajoy jaunari igorriko zaie, idatziz jaso dezaten bai Parlamentu honek bai Nafarroako herritarren gehien-goak zentral nuklear horren balio-bizitza luzatzeko aukerari emandako ezetza.”

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu emakumeen egiazko berdintasuna eta eskubide-osotasuna sustatuko duten lege-neurriak garatzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du emakumeen egiazko berdintasuna –eta ez soilik formala– sustatuko duten lege-neurriak garatzeko eta emakumeen eskubide-osotasuna bermatzeko.

Nafarroako Parlamentuak administrazio publikoak premitzen ditu mantentzeko emakumeen berdintasun-politiketara eta lana eta familia bateragarri egiteko politiketara bideratutako aurrekontuak, aurrerabide sendoa egite aldera berdintasuna egiazkoa eta ez soilik formala den gizarte baterantz.

Nafarroako Parlamentuak administrazio publikoak eta herritarrak premitzen ditu zero toleran-

tziako jarrera izan dezaten genero-indarkeriaren aurrean, eta Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integralaren alderdi ezberdinetan sakon dezaten.

Nafarroako Parlamentuak Kontzebituaren Bizaren eta Emakume Haurdunaren Eskubideen Babeserako Lege Organikoa indargabetzea exijitzen du, emakumeen askatasuna eta autodeterminazioa urratzen dituelako beren sexu- eta ugalketa-osasunari dagokionez.

Nafarroako Parlamentuak bere errokonozimendua adierazten die emakumeentzako eskubide berdintasuna bermatzeko aldera eta gizonezko nahiz emakumezkoentzako justizia, berdintasun eta libertate maila handiagoak lortze aldera historian zehar lan egin duten emakume guztiei.”

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie Nafarroako osasun-garraioko langileei, beren eskubideen eta lan-baldintzen defentsan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die Nafarroako osasun-garraioko langileei, beren eskubideen eta lan-baldintzen defentsan.

Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten du patronalaren eta langileen arteko bitartekotza-ekitaldiak, zeina otsailaren 27an egin baitzen, porrot egin izana, eta uste du abusuzkoa dela administrazio publikoak enpresa esleipen-hartzaileei aplikatu liezazkiekeen murrizketa-neurrien zama langileen gain uzten duen proposamena.

Nafarroako Parlamentuak aldezen du Osasun Departamentuak esku har dezan, Nafarroako anbulantzien lan-gatazkan langileen aldeko konponbide bat zehazteko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eta Osasun Departamentuari eskatzen die lehenbailehen bil daitezzen langileen ordezkariekin, arazoizko gutxieneko zerbitzuak hitzartze aldera, herritarrei zerbitzu-ematea ziurtatu bidenabar Konstituzioan jasotako greba eskubidea, zeina oinarritzkoa baita, errespetatuko dutenak”

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere erabateko aurkakotasuna adierazten baitu Botere Judizialaren Lege Organikoaren erreforma dela-eta, justizia unibertsalaren printzipioaren eraginkortasuna eragozten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere erabateko aurkakotasuna adierazten du Botere Judizialaren Lege Organikoaren erreformarako lege proposamena dela-eta, zeina Diputatuen Kongresuak onetsi

tsi baitu; izan ere, justizia unibertsalaren printzipioa baliatu ahal izatea eragozten du eta giza eskubideen aurkako bidegabekeria larria dakar; halatan, berehala erretira dezaten premiatzen du”

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzeko konpromiso irmoa duela, eta herritarrei gonbit egiten baitie parte har dezaten Emakumearen Nazioarteko Egunaren kariatara antolatzen diren ekintza guztietan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

Aitortzen du prestakuntzan eta sentsibilizazioan sakondu beharra dagoela gizarte patriarkal honetan ezarritako estereotipoak apurtzeko eta, hartara, aurrerapausoak emateko emakumeen aurkako indarkeria mota oro desagerrarazterantz eta familia- nahiz lan-erantzukidetasun handiagoa lortzeko trabak kentzerantz.

Gogorarazi nahi du emakumeek lan merkatuan eta esparru politiko, ekonomiko eta sozialetan parte hartzea ezinbestekoa dela krisiaren irtenbide solidario eta ekitatezko baterantz joateko.

Adierazten du errefusatu egiten duela Kontzebituaren Biziaren eta Emakume Haurdunaren Eskubideen Babeserako Lege Organikoaren aurreproiektua, onetsiko balitz lege- nahiz ideologia-atzerakada ekarriko lukeelako, eta emakumeak nahiz profesionalak babesgabetasuneko eta segurtasun juridikorik gabeko egoeran suertatzeko arrisku larrian utziko lituzkeelako; alegia, atzerakada ekarriko luke emakumeen autonomian eta askatasunean, beren sexualitateari dagokionez.

Adierazten du emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzeko konpromiso irmoa duela, eta herritarrei gonbit egiten die parte har dezaten Emakumearen Nazioarteko Egunaren kariatara antolatzen diren ekintza guztietan”

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuari Arrosadian lagatako etxebizitza komunitarioei buruzkoa.**KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuari Arrosadian lagatako etxebizitza komunitarioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebil-tzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Noiz eta zer baldintzatan laga zizkion Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuari Arrosadiko etxebizitza komunitarioak (Urrobi 16 1.C, 18 1.A eta Blas de la Serna 58 1.D)?

- Zer erabilera dute gaur egun etxebizitza horiek?

- Zenbateko okupazio maila izan dute laga ziren unetik? Eta orain?

- Zer irizpideren arabera lagatzen da etxebizitza horien erabilera eta zer baldintza eskatzen zaizkie erabiltzaileei?

- Zein arlo, departamentu edo enpresa publikok kudeatzen ditu etxebizitza horiek?

Iruñean, 2014ko otsailaren 26an.

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz

Galdera, Legasako Arcelor-Mittal enpresaren lurretan jarduera ekonomikoaren eremu bat eraikitzearen bideragarritasun ekonomikoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Legasako Arcelor-Mittal enpresaren lurretan jarduera ekonomikoaren eremu bat eraikitzearen bideragarritasun ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Arcelor-Mittalek Legasan dituen industria lurren haritik, badira hilabete batzuk Nafarroako Gobernuak, Nasuvinsaren bitartez, harremanak dituela inguru horretan jarduera ekonomikoaren gune bat

eraikitzearen bideragarritasun ekonomikoaren aztertze aldera –50.000 metro koadro nabeetarako eta 100.000 metro koadro inguru lursail gehigarrietarako–.

Arcelor Mittal enpresak Bertizaranako Udalarekin izandako bileren ondoren, badakigu enpresa horren industria lurra salgai jarraitzen dutela.

1. Zein da egungo egoera, bideragarritasun ekonomikoari dagokionez?

2. Zein dira Nafarroako Gobernuak Arcelor Mittalekin izandako azken harremanak? Eta zer ondorioetara iritsi da?

3. Erosi nahi al dizkio Nasuvinsak edo Nafarroako Gobernuak Legasako industria lur horiek Arcelor Mittali?

4. Nasuvinsak edo Nafarroako Gobernuak industria lur horiek erosiko balitu, zein jarduera ekonomiko edo proiektu kokatuko liriteke industriagune horretan?

5. Ba al da Nafarroako Gobernuaren eta Bertizaranako Udalaren arteko harremanik inguru horretan jarduera ekonomikoak abian jarri ahal izateko?

Iruñean, 2014ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMA ZIOA

Román Felones Morrás jaunak foru parlamentari karguari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Román Felones Morrás jaunak foru parlamentari karguari uko egiteko aurkeztutako idazkiari buruz, honakoa ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako idazkia, non foru parlamentari izaerari uko egiten baitio, zeina lortu baitzuen

martxoaren 28ko 1/2011 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (2011ko martxoaren 29ko 61. zenbakiko NAO), Partido Socialista de Navarra-PSOE alderdiaren hautagaitzaren barruan.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2014ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera